

## 6. GARAPENAREN PSIKOLOGIA ETA ETOLOGIA

Etologiak giza garapenean egin dituen ekarpen teorikoak landuko dira gai honetan. Lehen zatian, etologiarekin zerikusia duten hiru autore garrantzitsuenen lanak aztertuko dira. Alde batetik, Lorenzen eta Tinbergenen ekarpenak ikusiko ditugu; autore horiek etologia klasikoaren aurrekariak izan dira. Bestetik, Bowlbyren ekarpenak; giza etologia ikertzeaz arduratu zen autore hori. Ondoren, etologiaren aztergaiak eta atxikimenduaren teoria azalduko dira sakonago. Horrez gain, gaian sakontzeko jarduerak, gaia menderatzeko oinarritzko kontzeptuak eta azkenik, irakurgai osagarriak aurkeztuko dira.

### 6.1. Aurrekariak: Konrad Lorenz, Niko Tinbergen eta John Bowlby

Etologiak XVIII.-XIX. mendeetako alemaniar zoologian du jatorria. Jaiotzetiko jokabideen ikerkuntza zientifikoan interesa zuen jakintza gisa sortu zen, eta XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hartu zen diziplina berezizat, Konrad Lorenz eta Niko Tinbergen europar zoologoen lanetan oinarri hartuta. Egile horiek etologia modernoaren oinarriak finkatu zituzten animalia-jokabideak ingurunean izaten duen egokitzapenari buruz egindako behaketen eta azalpenen bidez, eta, hala, etologiako kontzeptu funtsezkoen zati handi bat landu zuten.

Etologiaren eta garapenaren psikologiaren artean gertatzen den elkarrekintzan, bi joera zientifiko nagusitzen dira jokabidearen azterketa mugatzeko orduan. Bata, *etologia klasikoa* da, eta biologiari oso lotuta dago; Lorenzen eta joera bereko beste egile batzuen (Eibl-Eibesfeldt, 1993) lanen ekarpenei esker sortu zen. Egile horiek, jaiotzetiko eta eskuratutako jokabidearen artean bereizketa egiten baitzuten, motibazioaren eredu energetikoak erabili dituzte eta uste dute berezko hautespenak taldearen mesedetan jarduten duela. Hor, *giza etologia* modu burujabea ulertzen da, psikologiaren gisako beste zientzia batzuetatik bereizita (Slater, 1988). Bestea, Tinbergenen jarraitzaileen -Hinderen, Batesonen eta Blurton Jonesen- ikuspegia da; horiek herentziaren eta ikaskuntzaren arteko joera interakzionista aukeratu zuten. Joera horren arabera, motibazioa aldagai esku-hartzailea da, eta berezko hautespenak norbanakoen ginetik jarduten du (Hinde, 1983). Jarrera hori, aurrekoa ez bezala, psikologiarekiko hurbiltze kontzeptual eta metodologikoa egitearen aldekoa da (Perez Pereira, 1995).

Ikuspegi etologiakoa berandu samar aplikatu zaio giza espeziari; Bowlbyk (1969) egin zuen etologia garapenaren psikologiara hurbiltzeko ahaleginik handiena, XX.

mendeko hirurogeiko hamarkadan atxikimenduari buruz egin zituen azterketei esker. Garapenaren beste ikuspegi batzuen antzera, etologia ez da gaur egun giza jokabidearen teoria bateratu bat. Hala ere, Martik (1991) dioten bezala, etologia garapenaren planteamendutik errotik aldatzen ari da bere ekarpen aberasgarriari esker, bai maila kontzeptualean bai metodologikoan. Eibl-Eibesfeldten (1993:19) arabera: “Giza etologiaren xedea gizakien jokabidea da, eta horretarako ikertzen du filogenian nola bilakatzen den eta ontogenian nola adierazten den, eta oinarrian dauden programa genetikoetan du interesa”.

## **6.2. Etologiaren aztergaiak**

Ikuspegi etologikotik, lau auzi nagusik laguntzen dute jokabidea ulertzen: lehena, nola bilakatu den jokabidea; bigarrena, zerk eragiten duen jokabide hori; hirugarrena, zein den haren bilakaera biologikoa eta azkena, nola bilakatu zen espeziearen eboluzioan.

Funtsezko lau auzi horietatik, ontogenesiari buruzkoa da lehena (nola bilakatzen den jokabidea); beste hirurek, garapenarekin zerikusirik badute ere, haratago doaz.

Lehen eta bigarren auziak jokabidearen deskribapen-sailkapena eskatzen dute, eta, ondoren, haren eta kausa aurrekari jakinen arteko harremanak ezartzea. Hala ere, lehen auziak -berez, auzi ontogenetikoa delakoa-, harreman berehalakoetara mugatu ordez, banakoaren bizitza osoan zehar izaten diren jokaeraren deskribapena eta aldaketa jartzen ditu mahai gainean.

Hirugarren auziak (analisi funtzionala) jokabidearen aurrekariak kontuan hartzeaz gainera, haren ondorioak ere aztertzen ditu; haietako asko erabakigarriak dira animaliak edo espezieak bizirik iraun dezan (adibidez, elikagaiak bilatzea, kumeak babesteko jokaerak eta abar).

Laugarrena jokabidearen garapenaren jatorriei dagokie (auzi filogenetikoa): hainbat espeziearen arteko jokabideak konparatuz, haien bilakaerari buruzko hipotesiak landu daitezke.

Lehen bi auziak garapenari buruzko azterketetan erabiltzen diren bakarrak izan arren (berehalako kausen aldaketaren eta analisiaren deskribapena eta azalpena), beste bi auziek (funtzionalak eta ebolutiboak) jokabidea ulertzeko eta analisi funtzional (jokabidearen ondorioei buruzkoa) eta kausala egiteko berebiziko garrantzia duen esparru osagarri gisa balio dute. Adibidez, haurtxoaren irribarrea amarenganako lotura sendotzeko balio duela esatea jokabide horren analisi funtzional bati dagokio. Esaten badugu irribarreak amaren

samurtasuna eragiten duela, harreman kausal bati buruz ari gara (Hinde, 1983). Ikuspegi bikoitz horren ondorioz, kausala eta funtzionala, alegia, etologoen ustez, garapena ez da helduarora doan ibilbidea soilik, baizik eta, ikuspegi funtzionalaren bitartez, heldugabetasunaren lehen aldiei ere garrantzi handia ematen die, funtsezko funtzioa izango baitute bai banakoaren garapenean bai espeziearen garapenean eta babesean (Hinde, 1983).

### 6.3. Atxikimenduaren teoria

Bowlby psikoanalistak etologiaren berri zuenez, bere behaketa klinikoak segurtatzeko eta *atxikimenduaren teoria* izenekoak formulatzeko aukera izan zuen. Hura izan zen postulatu etologiakoak haur-psikologian aplikatu ziren lehen aldia. Izan ere, 1958an Harlowrekin nazioarteko sinposio batean elkartu zenetik, lotura afektiboen teoria bateratu bat formulatzeko aukerari buruz hausnartzen hasi zen Bowlby. Geroago, Sistemen eta Psikologia Kognitiboaren Teoria ezagutzeak elaborazio osoago eta koherenteago bat egiten lagundu zion.

Bowlbyren ikuspegitik, haurra, elikagaien hartzaile pasiboa baino gehiago, atxikimendu-irudien bilatzaile aktiboa da; espezieak bizirik irautea errazten duen jatorrizko eta oinarrizko afektu-behar bati erantzuten dio jokabide horrek. Horretarako, bistan denez, haurtxoaren nahiz amaren jokabideak unibertsal eta bat-batekotzat hartzen dira; beraz, bi programen eguneratzea besterik ez da, bata bestearentzat egina, eta biziraupen-balio argia dute. “Gizarte-betebehar orotatik haratago, ‘amak’ ez balira barru-barrutik seme-alabei lotuta sentituko, ezingo litzateke azaldu, inondik inora ere, haien jokabidea, eta haurrak bizirik irautea arriskuan egongo litzateke” (Lopez, 1986:100).

Atxikimendu-indar primario baten ideiarekin koherente izan nahian, eta etologiaren eta psikoanaliaren arteko bere ahalegin integratzailearen ondorioz, Bowlbyk (1979, 1986) *pultsio* kontzeptua berrinterpretatu zuen kontrol-sistema gisa, hau da, jokabidea xede baterantz bideratzen duen programa gisa, eta esperientziaren datuek berrelikatzen dute hori. Hala, pultsioak, energia-iturri eta jokaera multzo estereotipatuak baino, inguruneko baldintzetara ohitzeko forma programatuak dira.

Bowlbyren ustez (1986), haur jaio berriak amarenganako duen atxikimenduak espeziearen jokabide-sistema bereizgarrien kopuru jakin batean du jatorria; horiek, oinarrian, batzuk besteetatik burujabe samarrak dira eta une desberdinetan agertzen dira; hala, ama objektu nagusia denez, haren inguruan antolatzeke eta haurtxoa harekin elkarrekikotasunez lotzeke balio du atxikimenduak. Honako jokaera-sistema nagusi hauek

dute eragina atxikimenduan: zupatzea, heltzea, negar egitea, barre egitea eta besarkatzea. Atxikimendu-jokabideek honako baldintza hauek sortzen dituzte: amarenganako urruntasunak, nekeak, goseak, ondoezak, beldurrak, kideengandik baztertzeak edo pertsona arrotz batekin egoteak. Haurraren seinaleei erantzuten dien amak (oihu egin, barre egin, zezelka egin, dei egin, besoak luzatu) bere jokabidearekin lasaitzen ditu. Horregatik, amahaur “elkarrekintza-elkartzea” hurbiltze-jokabideen, zaintzen eta argi eta garbi amarenak diren beste jokaera batzuen ondorioztat hartzen da.

Ondoren, 6.3.01. taulan, *sistema diadiko sinkronizatua* aurkezten da, eta diadaren bi aldean egoera eta jarduerak (Ama < - > Haurra) ageri dira.

### 6.3.01. Taula. Sistema diadiko sinkronizatua

Haurra	Ama
<p><i>Haurraren egoera:</i> Babesgabea eta amaren beharra du. Gizarte-irudien bilatzaile aktiboa da.</p>	<p><i>Amaren egoera:</i> Seme-alaba zaintzeko eta asetzeko gaitasuna du. Jadanik gizarteratua dago. Sentiberatasun berezia du haurrarekin batera jarduteko.</p>
<p><i>Haurraren jarduerak:</i> a) Gorputz-kontaktua bilatzen duten jokaerak: Erreflexuak: moroarena, bilatzea, xurgatzea. Kontakturako eta besarkadarako joera. b) Gizarte-estimuluetarako zentzumenezko lehentasuna: Ikusmenezko jokaera. Entzumenezko jokaera. c) Gizarte-komunikaziorako seinale-sistema: Keinuak. Negarra. Irribarrea.</p>	<p><i>Amaren jarduerak:</i> a) Haurrarekin gorputz-kontaktua izateko joera: laztanak, besarkadak, kulunkatzea, etab. b) Amaren jokabide bereziak: Ikusmenezkoa. Ahotsezkoa. c) Komunikazio-sistema bereziak: Keinuak. Ahozkoak.</p>

ITURRIA: De Lopez (1947, 108. or.)

Atxikimendu- eta hurbiltze-jokabideen “soldatzea” seigarren hilabetean gertatuko da. Lehen hamabi asteetan, pertsona-diskriminaziorik gabeko seinaleak daude. Ondoren, hainbat pertsonaren artean bereizten hasten dira, eta, seigarren hilabetetik hiru urtera arte, amarenganako hurbiltze etengabea eta arrotzen aurreko baztertze-jarrera gertatzen da. Ondoren, helburuak bideraturiko harremana sortzen da (Chazaud, 1981).

Laburbilduz, atxikimenduaren teoria garapenaren azalpen garrantzitsua da: lotura-espereientzia goiztiarrek geroagoko garapenean duten garrantzia berretsi du; hainbat gaitasunen eta jokabideren (barruko segurtasun-sentipena, gizartekoitasuna, inguruko mundua esploratzeko gaitasuna, bakardadea onartzea eta abar) eta garapenaren artean dagoen erlazioa frogatu du; prozesu luze horretan gatazkek duten garrantzia agerian jarri du (maitasun-gorroto afektuzko anibalentzia, dependentzia-independentzia eta abar) eta garapen afektiboari buruzko (heldutasuna, gaitasun enpatikoa, egonkortasun emozionala, eta abar) azalpen garrantzitsuak eman ditu.

#### 6.4. Gaian sakontzeko jarduerak

Etologiari buruzko edukietan sakontzeko, bideo-praktika bat eta lantegi bat proposatzen dira. Bideo-praktikaren edukia atxikimenduari buruzkoa da, eta atxikimenduari dagokionez animalien eta gizakiaren arteko desberdintasunak zein diren argitzeko asmoa du. Lantegia, berriz, etologiaren hainbat ezagutza teoriko lantzeko prestatu da. Ondoren, horiei dagozkien helburuak, baliabideak eta prozedurak zehazten dira.

##### 6.4.1. Bideo praktika: atxikimendua (II)

**Helburua:** atxikimendua zer den jakiteaz gain, atxikimenduari dagokionez animalien eta gizakien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea.

**Baliabidea:** La aventura de crecer (VII) dokumentala eta A eranskina.

Izenburua: *El apego*. La aventura de crecer (VII).

Egileak: Juan Delval eta Ileana Enesco<sup>19</sup>

Urtea: 1990

<sup>19</sup> Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Psikologia Fakultateko irakasleak.

Iraupena: 20'

Hizkuntza: gaztelania

Edukia:

Dokumental horretan, atxikimendua zer den eta nola garatzen den adierazten da. Lehenengo zatian, animalien arteko atxikimendua da mintzagai. Bigarren zatian, berriz, gizakien artekoa, bereziki ama eta haurraren artekoa.

Animalien arteko atxikimendua amak kumeari eskaintzen dioen elikadura, afektua, kontaktu fisikoa eta babesaren bidez sortzen da, eta, beraz, oinarrizko beharrezkoa da atxikimendua. Horren helburu nagusia bizirik irautea da. Animalien arteko atxikimendua aztertu dutenen iritziz, portaera horrek oinarri biologikoa du; eboluzioaren ondorioa da, eta espeziearen iraupena bermatu du.

Arestian aipatu bezala, gizakion arteko atxikimenduan, batez ere, amaren eta haurraren artean garatzen den atxikimendua da nagusi. Horren arabera, amaren portaerak eragina izango du umearengan. Adibidez, amak haurraren beharrezkoak berehala asetzen dituenean, umeak amarenganako konfiantza eskuratuko du, eta, horren ondorioz, segurtasuna sortuko da. Hala, mundua esploratzeko eta zenbait portaera esperimendatzeko, seguru sentitzen da haurra. Horrez gain, amaren eta haurraren arteko komunikazioa sortzen da, besteak beste, hitz egitean eta elikatzean. Hizkuntzaren adibideari dagokionez, hasieran, amak zerbait esaten dio eta, ondoren, umeak soinuak egiten ditu, bien artean hitz egingo balute bezala.

Horri guztiari esker, amaren eta haurraren artean, harreman pribilegiatua sortzen da (zupatzea, ukitzea, ikustea, eta abar) eta, ondorioz, lotura afektiboa sortzen da.

Amaitzeko, nabarmentzen da amaren eta haurraren arteko harremanaren arabera, atxikimendu mota diferenteak daudela: ume ziurrak (konfiantza, esploratzeko gogoia, amarengandik banatzea onartzen dute eta abar) edota ziurtasunik ez duten umeak (ansiojenoa, mendekoak, hotzak eta abar).

**Prozedura:** dokumentala ikusi eta gero, jarraian zehazten diren edukiei erantzun eta argitu, banaka edota talde txikitan.

- Gizakiengan erabiltzen den atxikimenduari buruzko definizio zehatza azaldu.
- Deskriba ezazu zein nolako garapena izan dezakeen atxikimendu egokia duen ume batek.